

5

Gazteak, hizkuntza eta hegemonia. Lekuan lekuko ikerketa antropologikoa Soraluzen

Maite Quintanilla Lete

Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua

Pil Pilean Euskaldunen Elkarteko kide

kinkimaite@gmail.com

Sarrera-data: 2014-09-30 / Onartze-data:2014-11-28

Laburpena. Gazteen euskararen erabilera kezka iturri bilakatu da azken hamarkadetan. Gaiaz asko hitz egiten da kalean, tabernan, eskoletan... Baina isilpeko ahotsa izan ohi da maiz gazteena, gazteez hitz egiten baita gazteekin baino gehiago. Honako ikerketan Soraluzeko gaztetxoek (15-16 urte bitarte) hizkuntzekin eta batez ere euskararekin daukaten harremana aztertzea izan da helburua. Hizkuntza hegemonikoa zein den eta nola eraikitzen den ulertzea. Gazteen erabileran eragiten duten faktoreak identifikatzea eta gazte hizkeren inguruan hausnartzea. Horretarako metodologia kualitatiboa erabili du egileak. Eta gazteen ahotsari bozgorailua ipinita, ikuspegi baikorretik landu da gaia. • **Hitz-gakoak:** *gazteak, euskararen erabilera, hizkuntza-hegemonia, gazte-hizkera, ahalduntzea.*

Abstract. Over the last few decades Basque use among youngsters has become a source of concern. Much is spoken about this issue in the street, in bars, in schools, etc. But the secret voice tends to be mostly that of youth because more is spoken about youth rather than actually speaking to young people. The aim of this research was to examine the relationship the youngsters of Soraluze (15- to 16-year olds) have with language and with Basque in particular. To understand what a hegemonic language is and how it is built. To identify the factors influencing use among youngsters and to reflect on the speech of youngsters. For this purpose the author has used a qualitative methodology. And by projecting the voice of youngsters, the subject has been tackled from optimistic perspectives. • **Key words:** *youngsters, Basque language use, language hegemony, youth language, empowerment.*

1. SARRERA

Etorkizuna modu berezian lotzen da gazteekin, denborak gazteak nagusi bihurtzen dituelako agian eta beraz, uneren batean jendartearen motore. Hizkuntzaren motore, esate baterako. Euskararen motore, zehatzago esanda. Eta Euskal Herrian bada kezka berezirik gazteak eta euskararen munduaz.

Etorkizuna gazteon eskuetan dago baina oraina ere bada gazteria eta jendartean jada motore. Euskararen gaiaren erdigunean gazteak jarri izan dira sarri; baina haiei bertan kokatzeko aukerarik eman gabe, helduagoen ikuspegi batetik landu delarik. Eta helduen esperientzian oinarrituta euskararen erabilera gazteen artean murriztagoa denaren ideia oso zabalduta dago.

Ikuspegi holistiko bat abiapuntu hartu nahian, hizkuntzaren antropologiaren baitan kokatuko nuke *Gazteak, hizkuntza eta hegemonia: lekuan lekuko ikerketa antropologikoa Soraluzen* deituriko hurbilpen hau.

Baina zergatik eta nola abiatu nuen ikerketa hau?

Soraluzeko Pil Pilean Euskara Elkarteko kide naiz eta bertako aisialdi taldetik 2008an ekin genion herriko gazteekin aisialdia euskaratik eta euskaraz lantzeari. Gaztetxokoaren bueltan proposatutako ekimen ezberdinei esker haiekin zuzenean harremantzeko aukera izan dugu. Bertako jardun eta harremanean, hizkuntzaren gaineko ardura nigan kokatuta, zalantza, kezka eta kontu ezberdinen zurrunbiloak harrapatu ninduen.

Zein harreman daukate Soraluzeko gaztetxoek hizkuntzekin? Nola irudikatzen dute harreman hori? Zein aldagaik baldintzatzen du harreman hori?...

Nigan sorturiko galderekin ikertzeko gogoia piztu zidaten. Baina, ez nuen, nik gaztetxoez (haietaz) hitz egin nahi. Nire asmoa, haiekin zuzenean gaiaren inguruan hitz egitea zen. Pentsatzen, sentitzen eta esan nahi zuten guzti hori entzutea. Elkarrekin ondorioak ateratzea. Eta bereziki haien jarrera ez epaitzea.

Horretarako baliabideak Gizarte Antropologiako ikasgai ezberdinetan eskuratu ditut eta euskara elkarteko jardunak aukera errealeak eskaini dizkit, erronkari ekiteko¹. Hori horrela; nerabezaroa norbere identitatea eraikuntza prozesuan etapa garrantzitsua izaki; Soraluzeko gaztetxoek (15-16 urte bitarte) hizkuntzekin eta batez ere euskararekin daukaten harremana aztertzea izan da nire helburua. Hizkuntza hegemonikoa zein den eta nola eraikitzen den ulertzea. Guztia, gaztetxoen ahotsari bozgorailua ipiniz.

**Soraluzeko
gaztetxoek (15-
16 urte bitarte)
hizkuntzekin eta
batez ere
euskararekin
daukaten
harremana
aztertzea izan da
nire helburua.
Hizkuntza
hegemonikoa
zein den eta nola
eraikitzen den
ulertzea. Guztia,
gaztetxoen
ahotsari
bozgorailua
ipiniz.**

Hizkuntza ez da gizarte gertakari ezberdinen ispilu soila. Horretaz gain, hizkuntza (hiztunak, hizkuntz taldeak eta hizkuntza praktikak barne) kultura eta gizarte baten partaide eta eragile ere badela azpimarratzen da. (Hernandez, 2005: 10).

Artikulu honen baitan ikerketan zehar aurkitutako eta arakaturako txoko ezberdinak argitzen saiatuko naiz. Lehenbizi, oinarri teoriko batzuk kokatuko ditut. Jarraian, ikerketa xume hau aurrera ateratzeko landu dudan proposamen metodologikoa aurkeztu eta ostean, analisis sakonduko dut, ardatz nagusiak landa laneko emaitzekin eta marko teorikoarekin osatuz.

Ikuspegi baikorrari eskutik helduta, ondorio nagusiekin amaituko dut txango hau.

Beraz, esango nuke, gazte ikuspegitik, gazteen ahalduntzea bultzatuz eta hizkuntzaren deman bestelako betaurreko batzuk jantzita datorkigula honako bidaia. On egin, bada!

2. IKERKETAREN KOKAPENA

I

2.1 Hizkuntzaren antropologia

Ikerketa hizkuntzaren antropologiaren esparruan kokatuko nuke.

Edward Sapir hizkuntzalari eta antropologoak *De lecturas de antropología social y cultural: la cultura y las culturas* (1995) liburuan hitz egitearen ekintzari buruz, honela dio:

Hablar es una función no instintiva, sino adquirida, una función de la cultura. (Sapir, 1995:218)

Beraz, kulturari hertsiki loturik dagoen prozesua erakusten digu parez pare. Eta hortaz hizkuntzaren antropologiaren ildotik, hizkuntzak praktika kultural gisa ulertuz komunikazio sistema baten baitan giza ordena bat markatzen dutela ulertzen da. Eta errepresentazio hauek ekintza sozialak egiteko erabiltzen direla azpimarratu.

Metodologiari dagokionez, behaketa enpirikoa eta deskribapen etnografikoa erabiltzen dira. Egitura linguistikoen errelatoak denbora eta espazio determinatu batean kokatzen ditu. Eta bertako subjektuak komunitate baten partaide diren hizlari edo aktore sozialak dira. Gauzak horrela, subjektu hauek instituzio sozialen bitartez egituratuak egoteaz gain, espektatiba, sinesmen eta balio moral batzuk dituzte.

Alessandro Durantik italiar antropologo ezagunak *Antropología lingüística* (2000) liburuan adierazi bezala:

Una visión del lenguaje como un conjunto de estrategias simbólicas que forman parte del tejido social y la representación individual de mundos posibles o reales. (Duranti, 2000:22)

Beraz, nola ikusten da antropologiaren ikuspuntutik hizkuntza? Modu errazean adierazten digu hori Jone Miren Hernandez EHU-ko

Gizarte Antropologia irakasleak *Jolasgaraia: Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak* (2005) ikerketan.

Antropologoen hizkuntza definitzerakoan eta aztertzerako garaian bi ideia nagusi azpimarratzen dituzte: batetik, hizkuntzak gizakiok gizartea eta kultura eraikitzeko eta berreraikitzeko erabiltzen ditugun tresnak direla diote. Bestetik, praktika horiek garatzerakoan hiztunok hurbileko ingurunea eta -orokorrean- munduaren irudikapena lantzen ari garela azpimarratzen dute. (Hernandez, 2005: 9)

Duranti-ri jarraiki honela segitzen du:

Hizkuntza ez da gizarte gertakari ezberdinen ispilu soila. Horretaz gain, hizkuntza (hiztunak, hizkuntz taldeak eta hizkuntza praktikak barne) kultura eta gizarte baten partaide eta eragile ere badela azpimarratzen da. (Hernandez, 2005: 10)

Hizkuntza elkar harremanean ulertzeraz garrantzitsuak diren, komunikazio tresna hutsaletik urrunduz; mundua ikusteko ikuspegi anitzak sortuz.

2.2 Hizkuntza hegemonia

Hegemoniaren kontzeptuan barneratzeko, ezinbestekoa zaigu Antonio Gramsci aipatzea. Filosofo-teoriko-politiko marxista zen kazetari italiar hau izan baitzen hitz honen adieran sakondu zuena.

Gramscik jendartearen aspektu kulturalen ipini zuen indarra. Kultura abiapuntu gisa kokatzen zuen, bertatik ekintza politiko bat bideratu eta hegemonia sortu nahiz erreproduzitzeko gaitasuna izanik.

Botere honen oinarria, beraz, hegemonia kulturalen legoke. Klase dominanteak klase menderatuarengan eragiten duen hegemonia kulturala; hezkuntza sistema, instituzio erlijioso eta komunikabideen kontrolaren bitartez bermatzen dena. Honela, jendartearen klase dominantearen ideien gailentasuna zerbait naturala eta beharrezkoa bailitzan hezten da. Eta nazio edo aberriaren izenean herriarengan sentimendu identitario gisa, klase dominantearen sentimendu nahiz ideak kokatzen dira. Honela sortzen da Gramsciren ideiei jarraiki, bloke hegemonikoa. Eta bertan kokatuko genuke, hizkuntzaren auzia ere.

Hegemonia kulturalaz mintzo gara hizkuntzari dagokionean ere. Kasu horretan klase sozial batenak diren hautemate, azalpen, balio eta usteak arau gisa ikusi eta unibertsal bilakatzen dira. Baina ezin ahantz dezakegu, eremu bati baino ez diotela on egiten errealitatean.

Santi Leoné Iruñeako historialariak, *Gure semeak dagoeneko badakizkien gauzak* (2013) artikuluan modu argian hitz egiten digu gaiaz:

Definizio simple bat emate aldera, hegemonia errealitatea ikusteko erabiltzen ditugun betaurrekoa izan liteke (betaurreko ikusezinak daramatzanarendako).

Normalizat jotzen duguna, araua dena, errealtatearen gaineko gainerako ikuspuntuak baztertu eta anormal bihurtzen dituen ikusmoldea. Begi-bistakoa dena. Naturala dena. (Leoné, 2013)

Unai Apaolaza, filosofian lizentziatuak *Hegemonia eta estrategia independentista* (2012) artikulua partikularra eta unibertsalaz mintzo da.

Laburtuz, unibertsala hegemonia lortu duen partikularra da, horrela hegemonia partikular bat unibertsal bezala ikusten eta onartzen denean gertatzen da. Hau da, eskari politiko partikular batek demokrazia, justizia, berdintasuna... adierazten dituen gertatzen da momentu hegemonikoa. (Apaolaza, 2012: 58)

Euskara partikular gisa ikusiko litzateke (minorizatua, txikia, batzuen, zaharkitua...) eta gaztelera berriz unibertsala dena (guztiak dakitena, dena dena, nagusia, modernoa...); eta beraz, hegemonikoa. Baina unibertsala, partikularra izan dela ezin dezakegu ahaztu.

Pierre Bourdieu frantses soziologoak kapital linguistikoa du hizpide *¿Qué significa hablar?* (1985) liburuan.

Kapital linguistiko edo sinbolikoa hizkuntza dominatzeko eta harreman komunikatiboetarako gaitasuna da. Ez da soilik diskurtso baten zuzentasun gramatikala kontutan hartzen, baizik eta sozialki onartua den. Merkatuak komertzioz erantzuten du eta aurre zentsura bat aplikatzen, autozentsura. Honen arabera hitz egiteko modu zehatz bat aukeratu da, hizkuntza bat aukeratu da (elebitasun egoera batean), hizkuntzaren maila ere bai. Baina batez ere esan daitekeena eta ezin dena esan determinatzen du Bourdieuren arabera.

Kapital linguistikok eragin bizia dauka, konpetentzia dominantea sortzerako orduan. Eta ildo horretan hezkuntza sistemaren eta familiaren mende egonik ere; hezkuntza sistemak alde batetik eta merkatuak bestetik, elkarren arteko harremanean eragingo lukete kapital linguistikoan.

Argi izatea komeni da, ikuspegi antropologiko batetik are gehiago, hegemonikoa den hori ere hainbat faktore sozio-politikok egin dutela hala. Beraz hegemonikoa den oro eraikia dela. Izan ere,

Zenbaitetan hegemonia, arras hegemonikoa baita. (Leoné, 2013)

2.3 Soraluze, kokapena eta testuingurua

Soraluze Gipuzkoako iparmendebaldean kokatuta dago, Deba ibaiak zeharkatzen duen bailara estu batean; Debarrena eskualdean. Honako herri hauekin egiten du muga: Elgoibar, Bergara eta Eibar. Egun, 4067 biztanle dituen hiribildua da. Bizkiarekin muga egiten duen eskualdean dagoenez, mendebaldeko euskalkia erabiltzen da Soraluzean.

1997 urte arte herrian 2 ikasgune zeuden. Alde batetik, Soraluzeko Ametsa Ikastola (D eredua) eta bestetik Herri Eskola (B eredua). 1997an, 2 eskolek bat egin zuten eta Plaentxia Herri Ikastetxea sortu zen. Bertako irakasle eta herritar ezberdinek aipatzen dutenez, Ikastolan eta Herri Eskolan bereizita ikasitako belaunaldiak, kalean ere islada izan zuten. Batzuek lagunarte euskalduna osatzen zuten eta besteak, berriz, erdalduna. Orduz geroztik, lagunarte gehienetan bi hizkuntzen arteko nahasketa gehiago igerri da eta lagunarteak gehiago erdaldundu direla aipatzen da; nahiz eta, gaztetxoek euskararen ezagutza eta gaitasun maila hobea lortu.

Soraluzeko euskararen ezagutza datuak ezagutzeko, 2013an kaleratutako *V.inkesta soziolingustikoa* hartuko dugu ardatz. Hemen 2011ko datuak ematen dira argitaratu.

Beraz Soraluzei dagokionean esan genezake, **euskararen ezagutza datuak** honakoak direla:

- %56,7ak euskara menperatzen du.
- %20,8ak euskaraz moldatzen da.

Beraz, euskararen ezagutzari dagokionean %77,5ak euskara ezagutzen duela esan genezake.

Ezagutza datuak gazteen eremura eramanez, gazteen %92ak euskara ezagutzen duela esan daiteke. Mikel Leundak *Soraluzeko gaztetxoak eta euskara: Gaitasuna, erabilera eta jarrerai buruzko azterketan* (2007) adierazi bezala.

Erabilera datuei erreparatuz gero:

1. taula. Hizkuntzen erabilera adinen arabera

	EUSKARA	BESTEAK
HAURRAK	%49,10 (69,8)	%50,90 *Gaztelera: %47,2 (30,2)
GAZTEAK	%24,2 (72,1)	%75,8 *Gaztelera: %68,4 (27,9)
HELDUAK	%32,9 (35,7)	%67,1 *Gaztelera: %59,9 (64,3)
NAGUSIAK	%21,6 (42,1)	%78,4 *Gaztelera: (%57,9)
GUZTIRA	%33,55 (49,6)	%61,43 *Gaztelera: %56,43 (50,4)

Iturria: Soraluzeko Udala (kale neurketa 2012). Parentesi artean daudenak 2001ekoak.

Orokorrean, 2001etik hona beherakada izugarria izan du euskararen erabilera herrian. Gazteengan, gainera, nabarmen. Egun beraz, orokorrean Soraluzeko biztanleriaren %33,55 erabiltzen du euskara eta gazteen %24,2-k.

Ikuspegi antropologiko batetik begiratuta, gaztaroa denbora nahiz espazioan erlatiboa den eraiketa kultural bat litzateke. Gizarte bakoitzak modu batean antolatzen du haurtzarotik heldu arorako trantsizioa.

Haurren atalean aipatzekoa da, hurrek beraien artean hitz egiterakoan euskararen erabilera %33,3-koa dela eta haur-helduen arteko elkarrizketetan %65,35era igarotzen dela erabilera hori.

Orokorrean, 2001etik hona beherakada izugarria izan du euskararen erabilera herrian. Gazteengan, gainera, nabarmen. Egun beraz, orokorrean Soraluzeke biztanleriaren %33,55 erabiltzen du euskara eta gazteen %24,2-k.

Horrez gain, kontutan izan beharra dago Soraluzen daukagun hizkuntza aniztasuna. 12-16 urte bitartekoan taldean jatorri anitzak dauzkagu. Sahara, Argelia, Maroko, Nepal, Pakistan, Ecuador, Alemania, Dominikar Errepublikar, Brasil, Colombia, Errumania, Portugal, El Salvador, Nikaragua, Cuba eta Honduras.

Beraz hau horrela izanik, ingelesa, frantsesa, harraniera, arabiera, urdua, alemana, portugesa, gaztelania eta euskara hizkuntzen, besteak beste, aniztasuna daukagu parez pare.

2.4 Gazteak, antropologiatik begirada

Gazteen antropologiaren alorrean ezaguna da Carles Feixa, antropologia sozialean doktore den kataluniarra. *De jóvenes, bandas y tribus* (1998) liburuan norabide bikoitzekoa kokatzen du, Feixak berak eremu hau:

Desde mi punto de vista, el objeto de una antropología de la juventud apunta a una doble dirección: en primer lugar al estudio de la construcción cultural de la juventud; en segundo lugar, al estudio de la construcción juvenil de la cultura. (Feixa, 1998:11)

Nire ikergaia 15-16 urte bitarteko gazteengan kokatuz, garrantzitsua iruditzen zait 1904an Hall psikologo estatu batuarrak sortu zuen nerabearen kontzeptura gerturatzea. Horretarako Feixaren hitzetara joko dugu:

Entendida como la fase de la vida individual comprendida entre la pubertad fisiológica (una condición “natural”) y el reconocimiento del estatus adulto (una condición “cultural”), la juventud ha sido vista como una condición universal, una fase del desarrollo humano que se encontraría en todas las sociedades y momentos históricos. Según esta perspectiva, la necesidad de un periodo de preparación entre la dependencia infantil y la plena inserción social, así como las crisis y conflictos que caracterizarían a este grupo de edad, estarían determinados por la naturaleza de la especie humana. (Feixa, 1998:16)

Ikuspegi antropologiko batetik begiratuta, gaztaroa denbora nahiz espazioan erlatiboa den eraiketa kultural bat litzateke. Gizarte bakoitzak modu batean antolatzen du haurtzarotik heldu arorako trantsizioa. Eta

kontutan izan behar dugu, bide eta edukiak zeharo aldakorrak direla, kultura batetik bestera. Prozesu honek oinarri biologiko bat baldin badu ere, aldaketa hauen pertzepzio soziala eta komunitatean dauzkan eraginak dira garrantzia berezia hartzen dutenak. Gaztaroari egozten zaizkion ezaugarriak, adin talde honi lotutako balioek eta mugek ezartzen dituzten erritoen eraginpean daude.

3. PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA

I
Gazteei buruz ari bagara, ezinbestekoa iruditu zitzaidan gazteen iritzia eta hitza kontutan hartuko zituen metodologia bat planteatzea, gazteen ahalduntzean lagunduz. Dabid Anautek *Zergatik egiten dute gazte euskaldun askok euskaraz?* (2007) artikuluan adierazi bezala:

Gaiak badu mamia, baita garrantzia ere, eta berebiziko garrantzia dauka gazteen ahotsa eta iritzia kontutan hartzeak, haiek baitira, azken batean, euskara erabiliko -edo ez erabiliko- dutenak. (Anaut, 2007: 18)

Gazteen ahots ixildua entzunaraztea garrantzitsua iruditu zitzaidan. Ildo horretan, Freixak 1957an Pasolinik² esandakoak gogora dakartza:

Es preciso dar la voz a los grupos subalternos, a “un pueblo cuyo clamor no es otra cosa que silencio”, compuesto de campesinos, obreros, mujeres y jóvenes con tradiciones culturales y valores particulares. (Feixa: 1998:59)

Handik eta hemendik marko teorikoa osatu eta lekuan lekuko ikerketa egitera abiatu nintzen. Olatz Zabaletak *Aisian aixe mintza* (2007) artikuluan aipatu bezala:

Zailena gazteentzako erakargarria zer den jakitea da, gazteok ez baitugu talde homogeneo bat osatzen. Aproposena tokian tokiko ikerketa txikiak egitea izango litzateke eta gazteak berak eskaintza horretan inplikaturik egotea. (Zabaleta, 2007: 11)

Aipu honi jarraiki, helburu argia neukan: eduki nahiz metodologia aldetik gazteei dagokien esparru eta ahotsa eskaintzea. Ikerketa xume honen bitartez izan bada ere, hona hemen erabilitako metodologia:

Metodologia kualitatiboa izan da guztiz erabili dudana, lekuan lekukoa sakonago aztertu eta ondorio orokorrago batzuetara iritsi asmoz.

— 2 eztabaida talde gidatu:

Aipatu bezala, Pil Pilean Euskaldunon Elkarteko kide izanik; Eus-

***Metodologia
kualitatiboa izan
da guztiz erabili
dudana, lekuan
lekukoa
sakonago aztertu
eta ondorio
orokorrago
batzuetara iritsi
asmoz.***

kaltzaleon Topagunetik “Zergatik Ez?” Taller pers la llengua talde kataluniarraren laguntzaz sortu zen tailerlean formatu nintzen. Norbana-koaren joeraren eraginaren eta garrantziaren gainean hiztunak hausnartzen jartzea du helburu Topaguneak ZERGATIK EZ tailerren bidez. Bakoitzaren hizkuntza jarrereri buruz eta egiten dugun hautuak izan dezaketen eraginaz gogoeta egitera bideratzen du tailerrak. Gogoeta hori taldean egiten da: elkarren artean hausnartuz; eguneroko egoerak oinarri hartuta eta bakoitzaren jarrera eta portaera epaitu barik.

Tailerren aurre-saioak erabili nituen eztabaida talde gidatu hau egituratzeko. 2 egun ezberdinetan bakoitzean ordubeteko saioa eginez jardun nuen; beharrezko baimenak aurrez lortuta. Bertan, Soraluzekeko institutuko 15-16 urte bitarteko ikasleekin aritu nintzen; 2014ko urtarrilean.

A taldea
15 pertsonaz osatutako taldea, 8 neska eta 7 mutilek hain zuzen ere. Bertan ama-hizkuntza gisa, hizkuntza ezberdinak ageri zaizkigu:
- EUSKARA (8 kiderena), GAZTELERA (5), HASSANIA (1) eta ARABEA (1).
Taldekide hauen artean 4 pertsona dira azken 5 urteotan Euskal Herritik kanpo etorritakoak (Kanarietatik, Valentziatik, Marokotik eta Hondurasetik).

B taldea
17 pertsonaz osatutako taldea, 12 neska eta 5 mutilek hain zuzen ere. Bertan ama-hizkuntza edo lehen-hizkuntza gisa, hizkuntza ezberdinak ageri zaizkigu:
- EUSKARA (3 kiderena), GAZTELERA (9) eta EUSKARA-GAZTELERA (5).
Taldekide hauen artean Euskal Herritik kanpo etorritako bakarra dago, Ekuadorretik, baina haurra zelarik etorri zen.

— 6 elkarrizketa

Eztabaida taldean parte hartu zutenen artean perfil ezberdinen artean 6 kide aukeratu eta elkarrizketatuak izateko proposamena egin nien.

Garrantzitsua iruditzen zait, gazteen arteko aniztasuna azpimarratzea. Jaumes Funes hezitzaile, psikologo eta kazetariak, Gipuzkoako Aldundiaren Gaztematikako sistemaren³ baitan, kaleratutako *Toki-eremuko “Nerabeentzako balio anitzeko zerbitzua” zehazteko oinarrizko dokumentuan* (2010) aipatu bezala:

Gure ingurunean nahitaezko nerabezaroak sortzen duen lehen harridura unibertsaltasun saihestezin hori da; bigarrena, bere aniztasuna da, nerabe-izaeraren aurrean ez, baizik eta nerabe-izaera anitzen aurrean gaudela egiaztatzea. Nerabetasuna adin-talde bat edo eboluzio-ezaugarri batzuk baino gehiago da; haien munduen ezagutza erabilgarriak ikuspegi poliedrikoagoak izatea dakar berekin. (Funes, 2010:19)

Bilakaera prozesu honetan gizabanako bakoitzak bere bidea jorratzen du, eta beraz etapa hau bizitzeko moduak askotarikoak izan daitezke. Aukera anitz, honetan hainbat dira eragiten duten faktoreak, ala nola: gizarte jatorria, genero eraikuntza, pertsona horrek eskuragarri duen kapital kultural, sozial eta ekonomikoa, inguruan izan ditzakeen jendarte taldeak, berdinaren artean dituzten harremanak...

Gazteen arteko aniztasun hori nabarmendu nahian, perfil anitzak aukeratzen saiatu nintzen:

— Mireia⁴ (15 urte): Ama hizkuntza euskara duena. Gurasoetako bat euskalduna, aiton-amonekin euskaraz. Euskararekiko atxikimendua, baina egunerokotasunean erdal hiztuna.

— Laura (16 urte): Familia ugaria eta amarekin bizi dena, lehen hizkuntzat gaztelania. Duela gutxi Euskal Herrira etorritakoa eta hizkuntza askorekin harremana (arabiera, katalana, gaztelania...). Euskara ikasten ari da, jarrera baikorrean.

— Mikel (15 urte): Etxeko hizkuntza gaztelania. Euskararekiko atxikimendu askorik ez, egunerokotasunean erdal hiztuna.

— Alex (15 urte): Ama-hizkuntza gaztelania. Hondurasen jaio eta 12 urterekin Euskal Herrira etorritakoa. Euskaraz mintzatzeko gaitasun osoa dauka, egun amarekin eta bere bikotekidearekin bizi da.

— Maialen (15 urte): Gurasoekin gaztelera mintzatzeko bada ere, nebarekin euskaraz ere egiten du. Lehen hizkuntzat euskara eta gaztelania ditu. Atxikimendua euskararekin eta gaitasun osoa.

— Jon (15 urte): Aitak euskaraz gaitasun handia ez izan arren, etxeko hizkuntza euskara da. Euskararekiko atxikimendua, konzientzia eta ardura erakusten ditu.

Hala, metodologian ekarpen nagusia, gazteei ahotsa eman, epaiketak albo batera utzi eta beraien ikuspegi ezagutaraztea izan da; gazteen ikuspegi-bizipen-errealitate aniztasunetik abiatuz.

4. ANALISIA

I
Eztabaida taldearen eta elkarrizketen bitartez jasotako datuak hainbat ardatzen baitan aztertuko ditut jarraian. Lanari abiapuntua eman zioten **hipotesiak** aipatzea garrantzitsua izango da ardatzen jatorria ulertu eta kokatzeko.

— Gaztetxoek gaztelera erabiltzen dute, norbere boteretzea taldean nahiz jendartean emateko.

Komunitate ezberdinez osatuta daude gazte hauen inguruneak nahiz identitateak. Eta gazte hauen boteretzea taldean ematerako orduan, elkarreraginean ematen den hizkuntza-praktikak berebiziko garrantzia dauka.

— Nerabeek gainontzeko heldu eta gazteak imitatzen jarduten dute eta errealitatearen ispilu dira.

— Euskara umeendako hizkuntza eta eskolako hizkuntza gisa kokatu eta honen aurrean aldaketa bat behar dutelarik; gaztetxoek uko egiten diote euskararen eguneroko erabilerari.

Euskara elkarteko eta aisialdi taldeko jarduna abiapuntu 3 hipotesi hauetatik ekin nion ikerketa xume honi. Eta honela kokatu ditut lehenbiziko 3 ardatzak ere; gaztetxoek boteretzea taldean, nerabeek gainontzeko heldu eta gazteen ispilu eta euskara umeendako edo eskolako hizkuntza ote den hausnarketa. Horrez gain, hegemoniaren gaiari helduz, garrantzitsua iruditzen zait identitatearen gaian barneratzea; izan ere hizkuntza gure identitatearen parte bada ere; hala denaren kontzientzia hartzen badugu mobilizazio gaitasuna geureganatzen dugula esango nuke. Ardatz interesgarria iruditu zait, gazteen ikuspegi anitzak kokatzeko. Eta azkenik, gazte hizkerari ere heldu nahi izan diot, hizkuntza hegemoniaren kasuan garrantzia berezia hartzen baitu norbere identitatearen eraikuntzan eta baita, talde boteretzean ere.

• 1. ARDATZA: Gaztetxoek boteretzea taldean (jendartean) eta hizkuntza

Ardatz hau lantzen hasteko, *Community of practice* kontzeptua aipatuko nuke. Jone Miren Hernandezek, honela jasotzen du:

Pertsona baten ingurunea komunitate ezberdinez osatuta dagoela dio Eckert-ek, eta horien partaide izatea izango du helburu. Horretan datza, gizarte zientzialariok gizarteratze prozesu bezala ezagutzera eman duguna. Prozesu horretan hizkuntzak erabateko garrantzia hartzen du. Prozesu horren bitartez, gizabanakoa bere identitatea definituz doa, hurbileko errealitatea osatzen duten komunitate edo talde horien eraketa finkatzen eta zehazten doan heinean. Prozesu horretan hitzuna egile eta eragile bihurtzen da, hizkuntzarekin egiten duena komunitate horiekiko duen lotura mota eta komunitate horien ezaugarrien isla izanik. Interpretazio honen azpian hizkuntz komunitatearen definizio berria antzeman daiteke, eta horixe da hain zuzen ere, Eckert-ek eta McConnell-Ginetek “Community of practice” kontzeptua proposatzerakoan planteatu izan dutena. (Hernandez, 2005:51)

Komunitate ezberdinez osatuta daude gazte hauen inguruneak nahiz identitateak. Eta gazte hauen boteretzea taldean ematerako orduan, elkarreraginean ematen den hizkuntza-praktikak berebiziko garrantzia dauka.

Aisialdi jardunean zehar egin dudana behaketaren bidez nabaritu dut Soraluzeko gaztetxoek gaztelera aritzeko daukaten ohitura. Eztabaida taldeetan parte hartu duten gazteek ere aipatu digute; gaztelera jotzen dutela batez ere lagunartean. Hauxe izanik, beraien egunerokotasunean garrantzia berezia hartzen duen komunitatea.

Kalean kuadrillan dabiltzanean zein hizkuntza erabiltzen duten galdetuta, eztabaida taldeetan parte hartu duten gazteen artean %50-ak aitortzen du gaztelera erabiltzen duela; %9,4-k euskara eta %40,6ak euskara eta gaztelera erabiltzen dituela. Euskara erabiltzeko arrazoiak artean kokatzen dute euskara jakin eta betidanik erabili izana; eta baita gehienek euskara jakitearen argudioa. Gaztelera gehiago erabiltzearen arrazoiak berriz honela argudiatzen dituzte:

- Lagunartean (haiengan) ardura ipiniz, batzuk: “gaztelera hitz egiten dozelako, ez dutelako ohiturarik euskeraz eitteko”.
- Besteak, taldearengan (norbera barne) kokatuz ardura: “gaztelera hitz egiteko ohitura, beti erderaz hitz egiten dugu”.
- Edota, norberarengan kokatzen duenik ere bada: “urtetzen zaidalako, errazagoa egiten zaidalako”.

Lagunarteko hizkuntza-erabileran ohitura eta haien hitzetan “naturalki ateratzen dena”-ri erreparatzen diote.

Badakizulako igual batek dakala erreztasuna euskeraz eitteko, eta igual beste batek badaki euskeraz ta ondo daki, baina urtetzen jatzu gaztelera. (Maialen, 15 urte)

Dabid Anaut filologoak *Zergatik egiten dute gazte euskaldun askok euskeraz?* (2007) galdera bota zuenean, ondorioztatu zuen gaztearentzat ez beti-koadrila oso garrantzitsua dela, eta lagunarte horri eusteko ahalegina egiten dela normalean. Honek ezinbestean, koadrilako arauak onartzea dakar; baita linguistikoak ere. Baina, argi dago, lagun taldeen hizkuntza ohituretan ere eragin bizi daukala inguru zabalagoak:

Naturala da, te sale. (...) Gehixau erderaz, jende guztiak erabiltzen dabelako. (Mireia, 15 urte)

Normala den edo ez; ezin esan. Baina ildo honetan, hizkuntza hegemoniaren atzapar luzea kokatuko nuke. Kurioso badiro ere, beraien hitzetan Soraluzeko herrian euskeraz mintzatzea litzateke normalena; Soraluze herri euskalduntzat baitaukate.

Soraluze euskalduna dala uste dot (...) Erdera entzuten da gehixen kalia... baina bai, uste dot euskalduna dala, eztaikit. (Maialen, 15 urte)

**Esan dezakegu,
azterturiko
gazteen artean
hegemonikoa
dena
gazteleraren
erabilera dela,
baina ez
hauengan
bakarrik.**

Ondorioztatu daiteke, euskalduna euskararen ezagutzari lotuta kokatzen dutela; eta ez horrenbeste erabilerari. Gainera, beraiek normalizat jotzen dutena, baliteke handik eta hemendik euskara egitera behartu edo animatzearen ondorio izatea. Badirudi, teoria edota izan beharko litzatekeena, behinik behin, ongi menperatzen dutela. Edota arauai muzin egiteko hautu bat dagoela. Baina horien aurrean, parez pare, kokatuko litzateke hegemoniaren mamua.

Boteretzearekin lotuta, garrantzitsuago sentitzearen kontua ere aipatu dute:

Eske nik uste dot jentiak pentsatzen dabela, erderaz berba eitten ke le hace más importante. (Mireia, 15 urte)

Esan dezakegu, azterturiko gazteen artean hegemonikoa dena gazteleraren erabilera dela, baina ez hauengan bakarrik. Herria erdalduntzen duen eremua⁵ ez litzateke zuzenki gazteen komunitatea modu bakartuan izango. Kanean euskara gutxi entzuten da orokorrean eta entzuten dena, bereziki, heldu eta haur komunitateen arteko elkarrizketetan izan ohi da.

Talde boteretzearen bidean hainbat esparru garrantzitsuak liriateke, berauetan harreman sareak garatzen direla kontutan hartuz gero:

— Familia

Oso familia gutxi ageri zaizkigu bi gurasoak euskaldunak dituztenak. Dena den, ez da ezinbestekoa gazteek boteretzearan eta identitatearen ezarpenean hizkuntzarekiko zein jarrera hartzen duten determinatzeko. Etxean erabiltzen d(ir)en hizkuntza(k) baino garrantzitsuagoa baita, hizkuntzekiko lantzen den jarrera, atxikimendua, begirunea, maitasuna... Ikuspegi eta balio kontua litzateke, beraz.

— Lagunartea

Gazteen harreman sareen zentruan kokatuko genuke elkarrizketetan behin eta berriz errepikatzen den lagun artea.

Danak eitten dabe erderaz... eta ba, kontajiau eitten gara (Mireia, 15 urte)

Besteengan kokatzen da maiz, ekintzen ardura. Elkarrizketatu guztiek aipatzen dute talde handian gazteleraz egiteko joera handiagoa dela. Talde txikian berriz, euskaraz gehiago egiten dute; batez ere, elkarrizketa laburretan.

5-6 hablan en euskera, pero luego ya cuando estamos todas, no se porque se dirigen ya en castellano. (Laura, 16 urte)

Pasau tippexa, pasau bolixa... holakuak gehixenak. (Mikel, 15 urte)

Liderren figura aztertu nahi izan dut. Baina gehiago sakondu beharko nuke ondorio esanguratsuak ateratzeko. Batzuek liderrak jada eraginik ez dutela aipatzen badute ere; lagun konkretuek hizkuntza bat edo beste erabiltzera daramatzatela azpimarratzen dute.

Pertsonen arabera...aldatzen da. Beti euskeraz...bera zuzentzen bada... (Alex, 15 urte)

Eta nabaria da, hizkuntza baten aldeko hautua egin dutenek botere nahikoa izan dezaketela hizkuntza baten erabileran eragiterakoan.

Ba uste dot baietz, por lo menos saiatzen naiz hori eitten, Hitz egiten doztenian erderaz, euskeraz eitten dotxet eta gero ya euskeraz hasten jataz... baina saiatzen naiz. (Jon, 15 urte)

Por ejemplo estamos hablando en castellano, pero el entra en euskera y la gente le sigue la conversación en euskera. (Laura, 16 urte)

Eta beraz, txikitasunean eragin bizia izan dezake norbanako bakoitzaren hautu eta pausuek bere ingurune hurbilean.

— Aisialdia

Aisialdia litzateke denbora libre antolatua; dela kirolen bat taldean praktikatzea, dela musika eskolara joatea, partikularretara...

Kirol esparruan, futbol taldea da eremu erdaldun gisa markatzen dutena gazteek.

Futbolian ba... entrenatzaillian arabera... euskeria edo erderia, segun zein dan entrenatzaillia...no se... (Alex, 15 urte)

Hori entzundakoa, hara Olatz Zabaletak *Aisian aixe mintza* (2007) artikuluan aipatutakoa:

Aisialdiak euskararen erabilera sustatzeko aukerak ematen baldin baditu, aisialdiko begiraleek, kirol begiraleek, gaztelekuetako begiraleek, ludotekako begiraleek, txango edo kanpaldietako begiraleek, eskolako jantoki edo autobusetako begiraleek, eta abar, eginkizun horrekin duten erantzunaz jabetzea komeni zaigu eta horretan lan egin ahal izateko estrategia eta tresnak erraztea. (Zabaleta, 2007: 11)

**Besteengan
kokatzen da
maiz, ekintzen
ardura.
Elkarrizketatu
guztiek aipatzen
dute talde
handian
gaztekeraz egiteko
joera handiagoa
dela. Talde
txikian berriz,
euskaraz gehiago
egiten dute.**

Dena dela, euskara eta aisialdiaren loturaren garrantzia sentipenen artean gozamenaren aldagaia egoteak azpimarratuko luke. Lionel Jolyk aipatu bezala, euskararen erabileraren giltza arrazoian baino, emozioetan eta sentipenetan legoke. Eta, euskara gozamenerako eta jolaserako bilakatu beharko litzateke aisialdi esparrutik.

— Sare sozialak

Esparru honetan gehiago sakondu badaiteke ere, erabiltzen dituzten sare sozialen artean gehien erabiltzen dutena twitterra da eta era berean euskaraz gehien erabiltzen dutena ere bada. Baliteke mezu motzagoak izateagatik gertatzea hori. Edota publikoagoa izan ohi delako? Hausnartzen eta ikertzen jarraitzeko esparrua, honakoa.

Ardatz honi itxiera emateko orduan, garrantzitsua iruditu zait migratzaileen kasua gogora ekartzea. Azken 4 urtetan Euskal Herrira etorri diren bi elkarrizketatuek aipatu dute, ezinbestekoa zaiela bertan guztiz integratu eta lagun artean partaide izateko euskaraz ikasi eta mintzatzea.

Neretako motibazioa (euskara erabiltzeko) hemen integratzeko behar izan dotela. (Alex, 15 urte)

Más ganas de aprender porque así me integro en todas la conversaciones...Yo quiero y yo lo intento.(...)Igual es muy egoísta, pero yo quiero aprender euskera, para saber todo lo que dicen, todo el mundo. Porque a veces cuando estoy yo delante y no quieren que me entere de lo que dicen... es que yo el día de mañana me quiero leer un libro en euskera y saber lo que pone, y entender (Laura, 16 urte)

Eta honek beste behin, ardura bertakoengan kokatzen du.

A! Eta..Y yo creo que si nadie supiese castellano y todos hablasen en euskera, eee que yo hubiese aprendido... azkarrago. (Alex, 15 urte)

Porque si se hablaría más en euskera, lo aprendería mejor. (Laura, 16 urte)

Hemengoek erabiliz gero, etorri berrien euskaraz ikasteko aukerak biderkatu egingo baitira; hizkuntz-komunitatearen eta lagunartekoaren kide azkarrago eta egokiago bilakatuz.

• 2. ARDATZA: Nerabeak, gainontzeko heldu eta gazteen ispilu.

Gogora dezagun bi trantsizio aldi barnebiltzen dituen etapa dela nerabearoa: Alde batetik pertsona horiek haur izateari uzten diote eta

errealitatea ulertzeko ordura arte izan duten modua eraldatzen da. Bestetik aldiz, nerabe horiek gazte izatera igaro arteko trantsizioa da. Etapa honetan nerabeek nerabe izateari utzi beharko diote gazte izatea lortu eta gazteek bezala jokatzeko hasi arte, hasieran imitazioz eta gerora kontzientzia propioz.

Hori horrela, umetan izandako ohiturak alde batera uzteari ekiten diote; baina era berean bestelako erreferente batzuk hartzen dituzte oinarri, gazteagoak edo helduagoak direnak.

Errealitateari begira ipinita, Soziolinguistika klusterrak 2011an egingandako VI.kale neurketaren arabera euskararen erabilera %14koa da eta ehuneko berean kokatzen da gazteen erabilera ere. Soraluzen, herriko erabilerako zifrapetik kokatzen da gaztetxoena. Baina heldu nahiz gainontzeko gazteena ildo beretik doa.

Ikertutako gazteak kontziente dira, euskararen ezagutza mailan gazteek bestelako talde batzuk baino ehuneko handiagoa osatzen dutela. Eta ohartzen dira erabilera ez dela handia. Beraz esan dezakegu, nahiko pertzepzio errealista daukatela egoeraren gainean. Eta eztabaida taldeetan ikusi bezala, harridura sortzen die ezagutza datuen arteko ezberdintasuna kontutan hartuta erabilera datuak horren berdintsuak izateak.

Euskaltzaleon Topagunetik lantzen dugun *Zergatik Ez?*⁶ tailerretan eta Soziolinguistika Klusterrak, Euskaltzaleon Topaguneak eta Urtxintxa Eskolak argitaratutako *Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku hartzeko gida. Erabileraren GPSa* (2011) liburuan hizkuntzen erabileran eragile diren faktore ugari aurkezten dizkigute eta eztabaida taldeetan landu nituen gazteekin:

- Input mediatikoa: Publizitatea eta marketing-a, hedabideak...
 - Komunikabideen artean, irratia da euskaraz kontsumitzen duten bakarra. Telebistan ezer gutxi eta interneten eskolarako lanetarako baino ez. Euskadi Gaztea da gehien entzuten duten irrati sintonia, bertan ipintzen duten musika gogoko dutelako. Beraz, interesgarria litzateke kasu hau aztertzea, gainontzeko eremuetara begira ikasteko.
- Kontsumo eskaintza: Ditugun beharrak asetzeaz gain, ditugun zaletasunak eta gustuak eraikitze nahiz praktikan jartzeko bidea.
 - Euskaraz kontsumitzen dutena batez ere musika da, zuzeneko musika bereziki. Horien artean kokatzen dituzte honako taldeak; Hesian, Gatibu, Vendetta, Esne Beltza, Iheskide, Ze Esatek, Berri Txarrak...
 - Baina era berean aipagarria da, parrandarako musikaren inguruan daukaten iritzia:

**Umetan izandako
ohiturak alde
batera uzteari
ekiten diote;
baina era berean
bestelako
erreferente
batzuk hartzen
dituzte oinarri,
gazteagoak edo
helduagoak
direnak.**

Eske tinbako musikia ba... erderaz edo ingelesez, eztau ezer euskeraz. (Maialen, 15 urte)

- Publizitateak erdarazko produktuak kontsumitzera bideratzen duela uste dute.
- Hizkuntza gaitasuna: Norberaren gaitasuna nahiz ingurukoena.
 - Matematikaz euskaraz jardun beharra daukate eta hori ezin hobeto egiten dute; baina harreman eta sentipenen inguruan ez daukatela gaitasun bera kontaktzen dute batzuek. Ama hizkuntza gisa euskara identifikatzen dutenen artean, berriz, gaitasun osoa daukatela diote gaia dena delakoa izanda ere.
 - Guztiek nahiago dute euskalkiaren erabilera egitea euskaraz mintzatzen direnean, eta hau batipat lagun artean eta kalean ikasten dutela aipatzen dute.
- Haurtzaroko hizkuntza ingurunea: Familian, eskolan eta herrian/auzoan izandako hizkuntza errealitatea.
 - Guztiak D ereduko ikasleak izanik, eskolan euskaraz ikasi dutela aipatzen dute (kanpotik etorriek salbu).
 - Baina familia artean aniztasuna da nagusi. Orokorrean, gai honetaz hitz egitean, ez dute bere eragina garrantzitsutzat hartzen; baina ondoren euskara zergatik erabiltzen duten galdetuta;
 - *ner ama-hizkuntza dalako* – maiz jaso izan dudana erantzuna izan da.
- Pertsona eta talde erreferenteak: Gizartean erreferentziazkoak diren pertsona famatuak eta gure ingurune hurbileko erreferentziazko pertsonen jokoak.
 - Erreferenteen inguruan galdetzerakoan, gazteleraz mintzo direnak aipatzen dituzte gehienbat. Eta euskaldunei buruz galdetzean, kirolari eta musikariak dira gogora ekarritakoak; *Hesianeko kantantia, Xabi Solano, Agirretxe futbolari, Laskurain herriko pelotarixa...*
 - Sakontzen jarraitzeko datu azpimarragarria iruditzen zait eztabaida taldeetan aipatutako erreferente guztiak gizonezkoak izatearena.

Beñat Gaztelumendik, *Euskara: Ikasi eta Bizi* (2007) artikuluan erreferenteen inguruan dio:

Erreferentziak eduki behar dira: umetan egiten ditugun lehenengo lagunak dira erreferentzia; ondoren dator telebista, irratia, musika, internet... Beraz, haurtzaroko lehenengo pausua ematen dugu: euskaraz ikasten dugu. Baina

ondoren, behar bat sortu behar da hizkuntza horretan hitz egiteko, eta, behar hori inguruak sortzen du. (Gaztelumendi, 2007: 19)

Finean, gazteak inguratzen dieten testuingurutik elikatzen dira. El-karrizketan zehar guztiek kokatu izan dute 20-30 urte bitarteko Soraluzeko gazteak euskaraz aritzen direnaren ideia.

Osea, gure edadiakin ondiokan igual ez, baina nausixaua zaranian bueltatzen zara berriz euskerara, igual pentsau itxen dozulako hobeto. (...) Baina según pertsonia bebai. (Maialen, 15 urte)

Baina badirudi gaztetxoek gazte hauek ez dituztela erreferente gisa kokatzen; euskaraz bizi direla uste dute eta gaztetxea kasu, gune euskaldun bezala kokatzen dute. Baina euskaraz bizitzeko hautua egin duten nerabeek zaharragoekin ibiltzera jo dute, eginiko hautua praktikan ipintzeko asmoz:

Pfff, erdera (bere adineko gazteak)... dana erdera, dan-dana erderaz eta ni ba zaharrauekin ibiltzen naiz eta horrekin euskeraz. (Jon, 15 urte)

David Anaut filologo eta euskara teknikariak diosku:

“Gazteak eta euskara” esan dugu, eta “haurrak eta euskara”, “helduak eta euskara”, “zaharrak eta euskara” ere esan genezake, estuki lotuta baitaude denak ere. Nekez irudika dezakegu gazteen euskararen ezagutza eta erabilera orokortuta edo normalizatuta, haurren, helduen edo zaharren ezagutza edo erabilera orokortuta edo normalizatuta ez dagoen herri batean. (Anaut, 2007: 16)

Are gutxiago, aurreiritziek horrenbeste indar daukaten herri batean. Etorri berriekin izandako elkarrizketetan topo egin dugu helduen guneetan ere badauden aurre iritziekin. Hondurasen jaiotako gazteak, honela aipatzen baitzidan:

Niri beti erderaz hitz egiten didate. Azalez morenoagoa naizelako... (Alex, 15 urte)

Bestetik, euskararen zailtasunarena mito gisa kokatuko genuke el-karrizketa hauen ostean:

Hasieran ez zan erreza... baina azkenean, uste baino erreza egin jata euskeraz ikastia (...) Zailena da, euskaraz egitea... nik uste dot jente danak euskeraz eginda, ba erreza ikasiko nuen (Dani, 15 urte)

Al principio cuando llegué dije, yo mato a mi madre, como me ha traído aquí, se que voy a suspender todo por culpa del euskera...super enfadada estaba...(...) pero luego cuando he visto que la gente, te facilita, sabes te ayuda, poquito a poco, pues no se me ha ido gustando y me he ido encariñando. (Laura, 16 urte)

Aberastasuna izan da, bi kasuetan azpimarratu duten hitza euskara ikasten ari diren gaztetxoek.

Eta argi izpiak, badira. Eskolan euskara batua lantzen dutela kontutan hartuta; konturatu naiz, euskara menperatzen duten gazte gehientsuenak euskalkian hitz egiten dutela. Beraz bada oraindik, gaztetxoek euskara zertxobait erabiltzen jarraitzen duten gunerik.

Gazteok gara protagonista, baina euskara haur, heldu eta adindurik ez duen euskara gazterik ba al da? Bakoitzak darama bere txapela.

• **3.ARDATZA: Euskara umeendako hizkuntza eta eskolako hizkuntza, ote?**

En el proceso que conduce a la elaboración, legitimación e imposición de una lengua oficial, el sistema escolar cumple una función determinante. (Bourdieu, 1985:22)

Bourdieu-ren hitzetan ikusi bezala, eskolak, administrazio publikoak nahiz gainontzeko instituzio politikoek pisu berezia hartzen dute hizkuntza baten boteretzean. Eta ezinbesteko dira hizkuntza bat ofiziala bilakatzeko, hori ezin dugu ukatu.

Gazteak eta euskara eskolara hertsiki lotuta ageri izan zaizkigu behin baino gehiagotan. Baina Lionel Jolyk esan bezala:

Gazteek euskara eskolan ikasteagatik ez dute zertan euskara automatikoki erabili behar. (Joly, 2007:5)

Eztabaida taldeetan jasotako erantzun ugari esanguratsuak iruditu zaizkit, gainera. *Zergatik erabiltzen duzu euskara*, galdetuta honako erantzunak entzuten dira:

- Klasian garelako
- Klasian obligatzen digutelako
- ...

Euskararekiko atxikimenduaren eta bizi esperientziaren araberakoa dela esango nuke. Etxean erabiltzeko aukera duenak edota lagunartean erabiltzen duenak ez dio horrenbeste garrantzi ematen eskolan derrigortzen duten edo ez. Ikasten ari denaren kasuan edo euskaraz aritzeko ohiturarik ez duenarentzat esanguratsua bilakatzen da, eskolan erabili beharra.

Klase bittartian gazteleraz eta klasian euskeraz, baina obligatorixua dalako. (Maialen, 15 urte)

Batzuk euskara haurren hizkuntza gisa kokatzen dute. Alde batetik, Soraluzeko adin tarte euskaldunena bezala identifikatzen dutelako.

Entre los niños más pequeños, yo creo que sí que se habla más euskera, igual porque lo aprenden más fácil y los están aprendiendo en la ikastola todo el rato. (Laura, 16 urte)

Nere familixan, por lo menos, umiak euskeraz entzuten dittut. (Jon, 15 urte)

Bestalde, elkarrizketetan etorkizunera bidaiatu eta beraiek hurrekiko harremanean kokatzeko eskatzerakoan (inguruko txikiekin izango duten harremanean irudikatuz) euskararen aldekotasuna esanguratsua da.

Umiak badakat euskeraz. Eta ume barik, según parejia (...) Umiek nahi dot txikitatik ikasi, beren ama hizkuntza izateko. (Mireia, 15 urte)

Umiak euskeraz badaki, ba euskeraz ingotxat...ze umieri da errezaua euskeraz eittia. (Maialen, 15 urte)

Gainera badirudi, haur izatetik heldu izaterako trantsizioak ohitura eta jarrera batzuk alboratzea dakarrela; gudan zerbait aldatu dela adieraziz; eta horri hertsiki lotuta ageri zaigu hizkuntzarena.

Carles Feixaren aipua gogora ekarriz, gazteria baldin badago bere egoteko modu, erritu eta balioekin izango da. Hemen ere aniztasuna dela oinarri, ahaztu gabe.

Para que exista la juventud deben existir, por una parte, una serie de condiciones sociales (es decir, normas, comportamientos e instituciones que distingan a los jóvenes de otros grupos de edad) y, por otra parte, una serie de imágenes culturales (es decir, valores, atributos y ritos de asociados específicamente a los jóvenes). Tanto unas como otras dependen de la estructura social en su conjunto, es decir, de las formas de subsistencia, las instituciones políticas y las cosmovisiones ideológicas que predominan en cada tipo de sociedad. (Feixa, 1998:18)

Esaterako esanguratsua da honako aipua:

Lehen, txikitxan gehixau erabiltzen neban euskaria...(...) eztakit 12 urtekin edo hasten gara gaztelera gehixau erabiltzen. Eztakit igual... 12 urtekin igual... tontuaua zara eta pentsatzen dozu erderaz eitten zarala mas wai... baina gero te das cuenta que no... eztakit. (...) Gure edadiakin ondiok ez baina gero nau-sixau zaranian, ba eztakit igual pentzau eitten dozulako, aldaketa bat emoten da... euskaria berriz gehixau erabiltzen hasi...(...) Baina bueno segun pertsonia bebai. (Maialen, 15 urte)

***Haur izatetik
heldu izaterako
trantsizioak
ohitura eta
jarrera batzuk
alboratzea
dakarrela; gudan
zerbait aldatu
dela adieraziz;
eta horri hertsiki
lotuta ageri zaigu
hizkuntzarena.***

Ondoriozta dezakegu, euskara funtzio sozial guztietan normaltasunez erabiliko den une nahiz lurraldean ikusiko dugula gazteon euskararen ezagutza eta erabilera normalizatuta.

Gertakari hauen oinarrian, urte luzez, hizkuntza plangintza ugari haur eta gaztetxoengan soilik zentratu izana egon daiteke. Lionel Jolyk aipatu bezala, helduek egin nahi ez zuten ahalegina plangintzen helburu ziren haurrek egitea espero izan da; ezer esaterik ez zuten haurrek, botorik eta iritzirik emateko aukerarik eskaintzen ez zitzairen gaztetxo berberak. Baina hori ez da horrela izan. Helduen bide beretik jotzen dute egungo gazteek ere, haur izateari utzi eta honekin batera hainbat ohitura alboratuz.

Beraz, ondoriozta dezakegu, euskara funtzio sozial guztietan normaltasunez erabiliko den une nahiz lurraldean ikusiko dugula gazteon euskararen ezagutza eta erabilera normalizatuta. Baina horretarako garrantzitsua da lehentasunak argituz ekitea.

Izan ere, Beñat Gaztelumendik bertsolariak esan bezala:

Urrezko aitzur bat eman digutela dirudi batzuetan, baina ez digutela lurra lantzen irakatsi. (Gaztelumendi, 2007: 19)

Izan ere, hizkuntza ez da hitz hutsa. Ez da jakitea soilik. Jakitetik erabiltzera bitartean behar bat dago, eta behar hori da askotan falta dena. Eta ezinbestekotasun hori instituzio ezberdinetan behartzeaz gain; garrantzitsua izango da egunerokotasunean kalean eta batez ere harremanetan euskararen beharra sentiaraztea.

Bide horretan norbanako bakoitzak izandako esperientzia oso garrantzitsua da. Eta beraz, garrantzia berezia daukate maitasun giroan txikitatik jasotako balioek; izan ere hizkuntzari lotutako mundu sinbolikoa (jarrera eta motibazioak) eta praktikoa (erabilera erreala) gerturatu dezakete. Beraz, euskaraz izandako bizipen positiboen garrantzia azpimarratuko nuke.

• 4. ARDATZA: Euskara, komunikazio tresna hutsa vs. norbanakoaren identitatearen eraikuntza.

Nerabezaroa, jendartea ezaugarritzen duen denbora sozial bat izateaz gain pertsonalizazio denbora eta prozesu bezala ere ulertu behar dugu, norbanako bakoitzak bere garapenean bizitzen duen nortasun eraikuntza intimo eta pertsonal bezala. Eta hizkuntzaren afera ere, hemen kokatuko genuke.

Identitate kolektiboan hizkuntzak garrantzia berezia dauka, dudarik gabe. Baina argi izan behar dugu, identitate hori anitza dela, izan ere; nazioak, generoak, orientazio sexualak, klase sozialak, erlijioak, etniak... elkarrekintzan eraikia da. Definizio komun batzuen baitan, beti

ere. Senidetasunak, inguruak, tribuak... ere eragiten dute eraikitze prozesuan, Rafael Cruz Madrilgo Complutenseko irakasleak *La cultura regresa al primer plano* (1997) testuan adierazi bezala. Eta finean, identitate kolektibo baten mende, mobilizazio gaitasuna har dezakegu, nonbaiteko partaide garela sentituz.

Gauza bera gertatzen dela esango nuke, hizkuntzarekiko harremanean ere. Gure identitatearen parte bilakatzen badugu, hautu kontziente baten bitartez mobilizazio gaitasuna eta kontzientzia geureganatzen ditugu; eta norberarentzako hegemonikoa dena definitzen da.

Ba bakoitzak erabaki leikelako zer hitz egin, ummm zerekin dauan gustorau. (Jon, 15 urte)

Norbere hautaketa kontziente horretan inguruko komunitate nagusiaren hizkuntz hegemonikoak indarra galtzen du.

Eske neretzat normala da (euskeraz egitea). (Jon, 15 urte)

Eta orduan, norbere identitatea garatzen joateko komunitate txiki, baina adierazkorragoak bilatzen ditugula esango nuke. Esaterako, el-karrizketatutako gazte batek lagun taldea aldatu eta euskaraz gehiago aritzen diren lagun zaharragoekin elkartzeko hasi da.

Kontzientzia geureganatzeaz gain, esango nuke auto pertzepzio kolektibo bat osatzen dugula eta kanpotik ere kolektiboarekiko pertzepzio kolektibo bat eraikitzen dela. Bertan hizkuntza ere, barnebilduz.

Nerabeek gazte bezala ikusten dute beraien burua (ez haur, ez heldu) eta beren sentipen, bizipen zein esperientzien araberrako arreta eskatzen dute. Nerabe bakoitzak beste nerabe taldeekin elkarrekintzan definitzen du bere burua, beren jokaerak imitatuz edo hauen kontraktasunean baieztatuz. Nerabeek beraz, beren izaera bilatzen, garatzen edo eraikitzen jarduten dute.

Baina ildo honetan ere, gazteen aniztasuna gogora ekarriz aipatu beharra dago denek ez dutela euskararekiko bizi-esperientzia berdina. Elkarrizketetan ikusi dugun bezala, euskararekiko inork ez du gorrotorik adierazi (gazteen artean halakorik egongo bada ere). Harreman ona daukatela esatearekin batera hauxe da euskararekiko bizipenean gehien ageri zaigun hitza: *Politta*

Elkarrizketetan nabaritu dudana bezala, euskara ama-hizkuntza edo lehen-hizkuntza den kasuetan; bizipen eta sentipenei oso lotuta ageri zaigu; *nirea, aberatsa...*

Baina ez da beharrezkoa, ez da modu bakarra norbanakoaren identitatearen parte garrantzitsu gisa irudikatzeko. Bizipen positiboak behar

Nerabeek gazte bezala ikusten dute beraien burua (ez haur, ez heldu) eta beren sentipen, bizipen zein esperientzien araberrako arreta eskatzen dute. Nerabe bakoitzak beste nerabe taldeekin elkarrekintzan definitzen du bere burua, beren jokaerak imitatuz edo hauen kontraktasunean baieztatuz. Nerabeek beraz, beren izaera bilatzen, garatzen edo eraikitzen jarduten dute.

Eztabaida taldeetan eta elkarrizketetan topo egindako gazteen artean hizkuntzarekiko harreman eta kontzientzia ezberdinak daudela konturatu naiz. Batzuek beraien identitateari lotuta nabaritzen dute hizkuntza; beste batzuk aldiz ez.

ditugu tarteko, datozen moduan datozela, ez besterik. Norberarentzat garrantzitsuak direnak eta gogoratzean goxo eta atseginez egingo ditugunak; horrelako esperientziak behar ditugu (bidaiak, parrandak, ekintza bereziak...). Eta ahal den neurrian euskaraz izan daitezten ahalegindu behar gara. Izan ere, oraingoz, eztabaida taldean ikusi bezala; bizipen positibo ugari ematen dira lagun artean eta batez ere aisialdiarekin lotura daukatenak. Berauetan, kasu gehientsuenetan, gaztelera da nagusi, bizipen positibo gehienak euskaraz dituztenen artean %9,4-a baino ez dute osatzen. Eta agerikoa da, esaterako, bizipen gehienak gaztelera dituztenen artean, euskarazkoak musikarekin lotuta ageri direla.

Ardatz honen baitako hausnarketa ez da euskara edota hizkuntzak komunikazio tresna hutsa diren edo ez. Identitatearen eraikuntzan eta mundu ikuskeran eragin bizia daukatela eta hizkuntza bakoitzak mundu ikuspegi ezberdin bat eskaintzen digula kontutan hartuta ere; gazteek horrela pertzibitzen duten litzateke kontua: nork bai eta nork ez; euskararekin duten harremana bizipen positiboari lotuta ageri den edo ez; edota norberak den hori izateko euskara behar duen edo ez.

Eztabaida taldeetan eta elkarrizketetan topo egindako gazteen artean hizkuntzarekiko harreman eta kontzientzia ezberdinak daudela konturatu naiz. Batzuek beraien identitateari lotuta nabaritzen dute hizkuntza; beste batzuk aldiz ez. Azken hauentzat komunikazio tresna hutsala litzateke (errealitatean hori soilik ez bada ere). Beraz, batzuen hautua euskararen aldekoa izan den artean; bestena ez da kontrakoa izan; baizik eta ez dute alde egin. Patuaren ideia daukate; "hau da egokitu zaidan lehen hizkuntza eta kitto EDO hau da ohituragatik egiten dudana/ateratzen zaidan hizkuntza eta listo".

Hautua egin izanak, eragina dauka norberaren hizkuntza ohituretan, baina baita gainontzekoen ohituretan ere.

Asko garenian erderaz eitten dogu eta ba... gutxi darenian, según eta zeintzuk daren... baina bai batzuekin normalian euskeraz. (Mikel, 15 urte)

Pertsona konkretuek...eztakit, euren izaeriak... eragiten dau (Maialen, 15 urte)

Pertsona konkretu batzuekin euskaraz egiteko ohitura daukatela kokatzen dute. Baina kasu gehientsuenetan, euskaraz harremantzen diren kideez hitz egiterakoan, pertsona bera behin eta berriz errepikatzen dela konturatu naiz. Eta pertsona horrek euskara erabiltzearen aldeko hautua eginda daukala aitortu.

Oso garbi daukat, zelan dan nere relaziñua euskerakin. (Jon, 15 urte)

Eztabaida taldean, euskara erabiltzearen edo ez erabiltzearen arrazoiak galdetuta, 3 kategoriatan kokatuko nituzke:

- Hautua egin dutenena:
 - *Euskal Herrian bizi naizelako (erabili)*
 - *Ez dot ikusten euskaraz ez eitteko arrazoirik (ez erabili)*
 - *Gure hizkuntza dalako (erabili)*
 - *Txikitatik euskara erabiltzera animatu nautelako (erabili)*
- Etorri berrien ikuspegia:
 - *Porque es imprescindible para todo en Euskadi (erabili/ikasi)*
 - *Para comunicarme con la gente y los profesores (erabili)*
 - *Lo utilizo en clase o con las personas que me hablan en euskara porque es necesario (erabili)*
 - *Ez dakidalako oso ondo, oraindik. (ez erabili)*
- Gainontzeko kideen kasuan, hauturik egin ez dutenak:
 - Erabiltzearen arrazoiak, beste kide batzuen hautuari lotutakoak izan ohi dira.
 - *Batzukin beti hitz egiten dotelako*
 - *Lagun batzuekin ohitura dudalako*
 - *Nire lagunak euskaraz eitten doztalako*
 - Euskara ez erabiltzeko arrazoiaren artean, ohitura da nagusi edo beste batzuegan ipintzen da ardura.
 - *Etxeko hizkuntza euskara ez den besteren bat izatia.*
 - *Eztakat ohitturarik*
 - *Ez dot eitten, lagunek ez dutelako kostunbrea*

Hauturik egin ez dutenek, egoera bakoitzean, era batera edo bestera jokatzeko dute. Egoera informaletan, lagunartean bereziki, gaztelera ateratzen da garaile. Baina, kurioski herriko dendari batengana hurbildu eta euskaraz dakiela jakinda; euskaraz zuzentzen dira gehientsuenak. Hori, dendariaren hizkuntza ohiturak ezagutzen badituzte; bestela “badaezpada edo gaizki ez gelditzeko” asmoaz, gaztelera zuzentzen dira. Horrez atzean, erosotasuna bilatzen dutela esango nuke.

Bilbon esaterako, guztiek erabiliko lukete gaztelera. Baina lekua edozein dela ere, norbait euskaraz zuzentzen bazaie; beraiek ere euskaraz erantzuneko lukete. Argi dago, hizkuntza hegemonikoa dela garaile kasu gehientsuenetan eta batez ere, erantzuna izan beharrean elkarriketa hastea baldin badagokie.

Hauturik egin ez dutenek, egoera bakoitzean, era batera edo bestera jokatzeko dute. Egoera informaletan, lagunartean bereziki, gaztelera ateratzen da garaile. Baina, kurioski herriko dendari batengana hurbildu eta euskaraz dakiela jakinda; euskaraz zuzentzen dira gehientsuenak.

Gutxi dira, **hautua egin** eta hegemoniaren aurrean bestelako jarrera bat hartzen dutenak. Kalea espazio neutroago bezala kokatuta, kontzientzia bat daukatenak baino ez dira ezezagunari euskaraz zuzentzen.

Inguruak eragina dauka, baina insistidu ein zeinke. (Jon, 15 urte)

Elkarrizketetan, hasiera batean; hizkuntza hautua eginda daukan gazteak baino ez du onartu “zein hizkuntza erabili” hautatu egiten dela. Gainontzekoek hautua ohiturak, inguruak, erraztasunak, pentsakerak, aurreiritziak... baldintzatzen dutela azpimarratu dute elkarrizketa amaieran. Gainera, konturatu naiz (galdera erantzuteko azkartasun eta segurtasunari erreparatuta), hizkuntza hautu kontziente bat eginda daukanak aurrez hausnartuta izaten dituela hizkuntzari dagozkionak; gainontzekoen kasuan duda-mudatan erantzun dituzte nire galderak antzeman dut.

Dabid Anaut filologoak *Zergatik egiten dute gazte euskaldun askok euskaraz?* galderari erantzunez, arrazoi nagusi gisa aipatzen digu erosotasunarena. Gizakiak ba omen du erosotasuna bilatzeko berezko joera bat.

Nik ez dot elegitzen, automatikoki urtetzen jata (...) ez igual ez badot ezagutzen pertsonia eitten dotzat erderaz, ba por si acaso ba ez errepikatzeo berriz, ez-takit... (Maialen, 15 urte)

Besteekiko harremanean ere eroso eta gustura sentitu nahi izaten dugu. Beraz, gazteleraz euskaraz baino hobeto moldatzen denak edota hizkuntza-kontzientziarik izan ezean, ezezagun batekin topo egiten duenak “errazenera” joko luke. Eta hori agerian gelditu zaigu.

Beraz erosotasunari aurre egiteko, beharra sortaraztea garrantzitsua da. Hautua egiteko baldintzak eta arrazoiak eskaintzea edota bestela, euskaraz bizitzea hegemonikoa bilakatzea. Horra aukerak!

• 5. ARDATZA: Gazte hizkerarik ba al dugu?

Dabid Anaut filologoak *Zergatik egiten dute gazte euskaldun askok euskaraz?* (2007) galdera botata, hainbat arrazoi adierazi dizkigu. Tartean, gazteak bere “gazte identitatea” adierazi eta islatu nahi izaten duela askotan. Eta horretarako bitartekoa; janzkera, orrazkera eta abarrekin batera, hizkuntza dela.

Horrekin batera, hizkuntza bat erabilia izan dadin zenbait ezaugarri izan behar dituela aipatzen du Zabaletak:

- Erosoa
- Adierazkorra
- Erakargarria

Baina egia da, gazteok euskaraz adierazkortasuna bilatzen dugunean arazoak izaten ditugula. Izan ere, gazte hizkerari dagokionean honakoa aipatzen du Zabaletak:

Euskara gehien erabiltzen den herrietan ere, gazteek erregistro kolokiala, eroso, adierazkor eta ekargarria, erdaratik hartzeko joera dute, are gehiago, euskaren presentzia handia ez den lekuetan. (Zabaleta, 2007: 10)

Elkarrizketetan gazte hizkeraren inguruan galdetzerakoan, isiltasunak nabaritu ditut batipat. Ez dakite orohar gazte hizkerarik baden edo ez. Konturatzen dira, herriko zaharrenekin alderatuz ezberdin hitz egiten dugula gazteok. Hara esandako batzuk:

- Zaharrak euskalkia markatuagoa daukate
- Azkarrago hitz egiten dute eta tonu ezberdinean (zaharrek)
- Guk (gazteok) gaztelerazko esamolde ugari sartzen ditugu

Horrez gain, honako adierazpideak kokatzen dituzte gazte hizkera gisa: *buah txabal, buah no me ralles...*

Eta etorri berrien ustez, doinu ezberdinean hitz egiten dute zahar eta gazteek.

Kike Amonarriz umoregile ezagunak gazte hizkeren ezaugarri gisa nahasiak direla aipatzen du. Eta maiz, nahasketa bera bilakatzen dela kezka iturri.

Eta zer nahasten dute? Euskara eta gaztelania, batua eta euskalkia, norbere euskalkia eta besteenak, euskara zuzena eta akastuna... (Amonarriz, 2007: 13)

Eta horixe da, nik ere elkarrizketetan nabaritu dudana. Euskara eta gaztelaniaren arteko nahasketak:

Eztakit, porke zuk ez dakizu berak ze hizkuntza hitz egiten daben eta orduan ba... por logika dakazu pentsauta ba... (Mireia, 15 urte)

Errebeldia kontua da... ya eres mayor! (Maialen, 15 urte)

Euskara ikasten ari direnak, etorri berriak kasu, euskalkia eta batua nahasten dituzte, gaztelerarekin batera:

Soraluzeko euskera entzuten ikasi dot... Jokinekin euskeraz egiten dot, beti-beti-beti. (...) Lagun bat daukat eta horrekin saiatzen naiz... y si digo algo mal me corrige y nos reimos. (Alex, 15 urte)

Eta euskara akastuna eta zuzena ere nahasten dute:

***Elkarrizketetan
gazte hizkeraren
inguruan
galdetzerakoan,
isiltasunak
nabaritu ditut
batipat. Ez dakite
orohar gazte
hizkerarik baden
edo ez.
Konturatzen
dira, herriko
zaharrenekin
alderatuz
ezberdin hitz
egiten dugula
gazteok.***

Ni esan zoztazunian, dije... aibaaaaa! (Mikel, 15 urte)

Nik uste, gazte hizkerari begira, zuzentasunean oinarritua, baina adierazkortasunaren grinaz bultzatuta eraiki beharko direla.

Kike Amonarrizek eta Jexux Mari Irazuk “Zer nolako euskara darabilte gazteek?” galderari erantzuterakoan, honako faktoreak azpimarratzen dituzte: erdararen hegemonia, hezkuntza sistemak euskararen irakaskuntzan izandako akatsak eta erakutsitako hutsuneak, eta euskarak berak garatzeko izan dituen arazoak eta berezko gabeziak. Elementu hauek-beste batzuen artean definituko lituzkete egungo gaztetxoek hizkuntza praktikak. Eta ondorioztatu dezakeguna da, gazteek berezko errepertorio baten falta sumatzen dutela. Are gehiago hitanoa ezagutzeko aukera gutxi eskaintzen zaienean.

Xabier Paya bertsolari eta itzultzaileak ere, gazte hizkeren inguruan hitz egiten du *Zazpi barako atorra* artikuluan. Euskararen inguruan zorroztasunez jokatzeko dugula aipatzen du. Garrantzia berezia ematen diogula ergatiboa ongi jakiteari, baina ez ordea, euskarazko esamoldeetan daukagun hutsuneari. Elkarrizketetan zehar saiatu naiz, gazte hizkeraren inguruko zantzu batzuk gordetzen. Jarraian datorrenak, euskarazko esamoldeak ezagutu nahiz erabiltzeko dagoen hutsunea agerian utziko luke:

Lehen gehixau, oin gutxiau... ze pakistani eta etorri dia hona...ta aurpegi asko dakate. (Mikel, 15 urte)

Transmisio ezaren ondorio bezala kokatuko nituzke honakoak. Izan ere, euskara eskolako hizkuntza baino ez bada batzuentzako eta kalean nahiz belaunaldi ezberdinen artean hizkera informala inguruko transmisiorik ematen ez bada, beste hizkuntza batzuetako esamoldeak itzultzea litzateke ondorioa.

Gainera internet, digitalizazioak eta telefoniaren garapenak pertsonen arteko harremanetan aldaketak eragin dituzte. Batez ere, maila idatzian eta honek hizkera berriak sortu ditu.

Hori dela eta, ezin dezakegu gazte hizkera bakar batez hitz egin.

Gazte hizkeran baino, gazte hizkerez hitz egin beharko genuke, eta jarrera positiboa hartzez gerotan, baita hizkera gazteez ere. Gazte hizkera asko dago, errealitate soziolinguistiko adina. Eta tipologia soziolinguistikoak asko ugaltu direnez, gazte hizkera eta hizkera gazteak ere asko ugaltu dira. (Amonarriz, 2007: 13)

5. ONDORIOAK

I

Josune Zabala hizkuntzalariak, *Oin zolak, urra urra eginda* (2007) testuan hamaika galdera plazaratzen dizkigu:

Zein adinetakoen euskara ereduak izan ditugu? Zenbat euskara adinekin jarri gaituzte harremanetan edo jartzen gara jolasean? Zein hizkuntza trebetasun garatu ditugu, batik bat, eskolan? Euskararen kalitatea ziurtatzen duten irakasle ereduak ditugu eskoletan? Eta komunikatzaile eraginkorrak hedabideetan? Eta administrazioan? Lantzen ote dira hizkuntza jarrerak? Hizkuntza erabiliaren gaineko hausnarketak egiten badakigu? Zenbaterainoko aukera izan dugu euskara eta bere kulturarekin harremanetan jartzeko? (Zabala, 2007: 4)

Guzti horrek gugan eragina dauka, gazte eta gaztetxoen euskararen erabileran eragiten du. Eta gainera, behin eta berriro geure buruei gogoratu behar diegu gazteen artean aniztasuna dela nagusi. Eta kontutan hartu behar dugu baita euskararen etorkizuna funtzionalismoaren bidetik etorriko dela, maitasuna jada egon badago eta.

Batzuek euskararen aldeko hautua egingo daukate, beste batzuek oraindik ez eta beste batzuek ez dute agian sekula egingo hautu hori. Beraz argi dago, orain artean ikusitakoaz, polita izate hutsagatik bakarrik ez dela gehiago erabiliko euskara. Argi dago, baita eskolaren esku ezin dugula euskalduntzearen ardura utzi.

Si la gente te facilita y te ayuda, para ti es mucho más fácil y dices, bueno tío, voy a aprender porque si me ayudan va ser todo más fácil y si mis amigos no me ayudasen yo creo que no...porque tampoco son las profesoras, lo que aprendes en clase... es que luego no te vas a pasar todo el día estudiando en casa, te hace falta práctica con los amigos, con la gente. (Laura, 16 urte)

Eta beraz gune hegemonikoak eskaintzeaz batera; erreferenteak behar ditugu. Eta noski, bizipen positiboak euskaraz ugaritzea. Finean,

Eman diezaiegun gustuko duten zerbait euskaraz bakarrik eta hori erakargarri bihurtuko dien erreferente bat. (Paya, 2007:15)

Izan ere, euskararen erabileran pausoak emateko bi bide ditugula uste dut (elkarren alboan egin daitezkeenak). Bata, gazte ororen kontzientziak euskararen alde aktibatzea eta bestea, poliki-poliki erreferente eta bizipenen bitartez euskara hegemoniko bilakatzea gunez gune. Ikerketan zehar antzeman bezala, gazteen artean diskurtsoa euskararen aldekoa da (babestu, zaindu, maitatu...); baina erabileran urratsak emateko "beharra" da sortu eta aktibatu behar dugun tekla.

**Batzuek
euskararen
aldeko hautua
egina daukate,
beste batzuek
oraindik ez eta
beste batzuek ez
dute agian sekula
egingo hautu
hori.**

Lan honetan izandako asmoari jarraiki; gazteei dagokien lekua eskaini, eta ahalduntzean lagunduz bizipen positiboak ugaritzen joateko aukerak biderkatu behar ditugulakoan nago. Aisialdi eskaintzei erreparatu eta erakargarriak euskaraz eskaintzen ahalegindu beharra daukagu. Baina, ahal den neurrian, gazteak eskaintzan inplikatur eta parte hartuz. Eta pausoz pauso, balio hezitzaileak oinarrian ipinita jardun. Izan ere, balio hezitzaile hauek bizipen positiboak positiboagoak izan daitezen lagunduko baitute.

Beraz, aukerei erreparatzea garrantzitsua da. Ikuspegi baikorretik begirada luzatzea dagokigu guri eta gaztetxoei begirada bera eskaintzea, lanketa bide positibotik bideratzea. Eta poliki-poliki funtzio intimoenak eskura ipini behar dizkiogu euskarari. Beti ere, funtzio sozialak indartuz.

Bide horretan, Xabier Payak adierazi bezala:

Erdara “diskriminalizatzea” garrantzitsua da euskarak eta erdarak elkarrekin bizi behar duten inguruetan. Gazteak ezin du ingurune erdaldunaren errudun sentitu, gaur egungo gizarteari erreparatuta, erdara ez baita desagertuko Euskal Herrian. Bideratu beharrekoa euskal gazteriaren diglosia da, euskara ager dadin erdararen gainetik, baina errealitate eleanitza ukatu gabe. (Paya, 2007:15)

Errealitate eleanitzari ikuspegi positibo batetik begiratzea ere badagokigu, aniztasuna aberastasuna baita. Eta errealitatea, lekuan lekuko azterketak eginez hobetoxeago ulertzeko aukera ezin hobea daukagu.

Berz honakoa hurbilpen txiki bat; besterik ez. Bide honetan sakontzeko aukerak zabalduz eta mila ardatzen bueltan hausnartzeko nahiz solasteko bidexidorrak eskainiz. ●

OHARRAK

1. Ikerketa 2014ko urtarrilean abiatu nuen eta 2014ko uztailean eman nion behin behineko amaiera (aurrerago gaian sakontzeko asmo biziz).
2. Pier Paolo Pasolini (1922, Bolonia-1975, Erroma) italiar zinema-zuzendari, olerkari, idazle eta intelektual bat izan zen. Gramsciren inguruko poema liburu bat ere kaleratu zuen, *Le ceneri de di Gramsci* (1957).
3. Gaztematika, Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistema izendatzeko erabiltzen den izen laburra da. Sistema hau, 2008an eta 2009an egindako hausnarketa-prozesu baten emaitza da. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako prozesu horretan haurren eta gazteen esparruan lan egiten duten udal-teknikari ia gehienek parte hartu zuten, bai eta bestelako profesionalak eta erakundeek ere.
4. Elkarrizketetan izenak asmatuak dira beraien pribazitatea mantentzeko asmoz.
5. Soraluzeko erabilera datuetan ikus dezakegun bezala, euskararen erabilera gazteen artean %24,2an dago eta helduengan %32,9an. Baina azken hauen kasuan, haurrekin erabiltzen dutenean izan ohi da batez ere.
6. Euskararen inguruko motibazio tailer hauek, euskararekiko jarrera baikorrak sustatu nahi ditu, hiztun aktiboagoak bihurtuz tailerreko partehartzaileak. Funtsean tailerra galdera baten bueltan antolatu da: Zergatik ez kokatu euskara guztion elkargunerako, komunikaziorako hizkuntza gisa? Zergatik ez hautatu euskara lehengo berba gisa?

BIBLIOGRAFIA

- Amonarriz, Kike (2007): "Garai berriak, hizkera berriak". *Larrun aldizkaria* 106. zbk, 12-13 orr.
- Anaut, David (2007): "Zergatik egiten dute gazte euskaldun askok euskaraz?" *Larrun aldizkaria* 106. zbk, 16-18 orr.
- Apaolaza, Unai (2012, abendua): "Hegemonia eta estrategia independentista". *hAUSnART, Lapiko Kritikoa kolektiboaren aldizkaria* 2.alea, 50-69 orr.
- Bourdieu, Pierre (1985): *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madrid: Akal.
- Cruz, Rafael (1997): "La cultura regresa al primer plano", en Rafael Cruz y Manuel Pérez Ledesma (eds.): *Cultura y movilización en la España contemporánea*. Madrid: Alianza.
- Duranti, Alessandro (2000): *Antropología lingüística*. Madrid: Cambridge University Press.
- Elustondo, Miel Angel. *Lionel Joly: "Jendeari galdetu ze hizkuntzatan hitz egin duen halakorekin duela bost minutu, eta ez daki"*. Argia. 2005eko martxoaren 6a. (1982.alea) (Ikusia: 2014-02-01).
- Euskaltzaleon Topagunea: "Zergatik Ez" Euskararen motibazio tailerrak. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak.
- Feixa, Carles (1998): *De jóvenes, bandas y tribus*. Barcelona: Ariel.
- Funes, Jaume (2010, azaroa): *Toki-eremuko "Nerabeentzako balio anitzeko zerbitzua" zehazteko oinarrizko dokumentua*. Gaztematika (Gipuzkoako haur eta gazteen sustapenerako sistema), Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Gaztelumendi, Beñat (2007): "Euskara: Ikasi eta bizi". *Larrun aldizkaria* 106. zbk, 19-20 orr.
- Hernandez, Jone Miren (2005): *JOLASGARAI: Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Soziologiazko Euskal Koadernoak 16. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu nagusia
- Joly, Lionel (2004, abendua): "Euskararen erabileraren bilakaera azken ikerketen argitan". Iritzia: Lionel Joly. *BAT aldizkaria* 53. Alea.
- Joly, Lionel (2007): "Beste adin taldeek ere plangintza behar dute". *Larrun aldizkaria* 106. zbk, 5-7 orr.
- Kohan, Néstor (2004): *Gramsci para principiantes*. Buenos Aires: Era naciente.
- Leoné, Santi. *Gure semeak dagoeneko badakizkien gauzak (baina nire ahotik ikasi ez dituenak)*. Zuzen. 2013ko azaroaren 27a. (Ikusia: 2013-12-05).
- Leunda, Mikel (2007). *Soraluzeko gaztetxoak eta euskara: Gaitasuna, erabilera eta jarrerari buruzko azterketa*. HIZNET eta Soraluzeko Udala (Argitaratu gabea)
- Martínez de Luna, Iñaki (2011): *Kale-erabileraren VI. neurketaren emaitzen txostena*. Andoain: Soziolinguistika klusterra

Paya, Xabier (2007): "Zazpi barako atorra". *Larrun aldizkaria* 106. zbk, 14-15 orr.

Sapir, Edward (1995): *De lecturas de antropología social y cultural: la cultura y las culturas*. Madrid: UNED.

Zabala, Josune (2007): "Oin zolak, urra urra eginda". *Larrun aldizkaria* 106. zbk, 3-4 orr.

Zabaleta, Olatz (2007): "Aisian aixe mintza". *Larrun aldizkaria* 106. zbk, 11-11 orr.

ERANSKINAK

ELKARRIZKETARAKO EREDUA

Azalpena

- Ahotsa grabatzeko baimena eskatu.
- Antropologia ikuspegia kokatu.
- Nire lanaren oinarriak kokatu.
- Inor epaitu gabe zuek entzutea da nire gaurko helburua. Gazteok subjektu aktibo baikara.

Elkarrizketa:

DATUAK JASOTZEN

- Hainbat datu orokor
 - Izena
 - Adina
 - Sexua
- Hizkuntzari dagozkion datuak orokorrak
 - Ama hizkuntza
 - Familiaren hizkuntz perfila
 - Hizkuntz ibilbidea (jaio zinenetik gaur egun arte, hizkuntza ezberdinekin izandako harremana)
 - Ezagutzari lotua batez ere.

HIZKUNTZEI BEGIRA

*Hasi aurretik, hotzean... iritzia ezagutuko dugu. Ondoren amaieran berriz ere galdera bera egingo diogu...

- Hizkuntza hautua
 - Zein hizkuntzatan aritu hautatu egiten dugu?
 - Hizkuntza batean jardun edo bestean hautatu egiten dela uste duzu? Zergatik?
 - Gazteleraz edo euskaraz egiteko, hautu kontziente berdina egin beharra dago?
 - Zerk/nork baldintzatzen du hizkuntza batean edo bestean aritzea?

SORALUZERI BEGIRA

- Pertzepzioak
 - Soraluze herri euskalduna dela uste duzu?
 - Zein hizkuntza da nagusi?
 - Haurrengan? Gazteengan? Helduengan? Zaharrengan?
 - Zein eremutan, zein hizkuntza?
 - Eskola, gaztelekua, kiroldegia, futbol zelaia, kalea, lokalak...
 - Euskararen aldeko elkarteak ezagutzen dituzu? Soraluzen?
 - Euskararen aldeko ekimenak ezagutzen dituzu? Soraluzen?
- Gazte hizkera
 - Euskarazko gazte hizkerarik dagoela uste duzu Soraluzen?
 - Zer litzake gazte hizkera? (adibide batzuk)
 - Zuk erabiltzen duzu?
- Hegemoniari helduz
 - Soraluzen zein hizkuntza erabiltzea litzateke normalena?
 - Eta gazteen artean, zein hizkuntza erabiltzea litzateke normalena?

NORBERARI BEGIRA: bitzta ibilbidea eta oraina

- **Balioak**
 - Ezagutzen duzun hizkuntza bakoitzari zein ezaugarri subjektibo ipiniko zenioke?
 - Ezaugarri bakoitza nondik jaso da? (Jendartea, familia, bikotea, lagunak, irakasleak...)

- **Pertzepzioak**
 - Nolakoa uste duzu dela euskaraz aritzeko daukazu gaitasuna?
 - Euskara batuan edo Soraluzeke euskalkian hitz egiten duzu, euskaraz ari zarenean?
 - Norekin, noiz...

- **Norbere hizkuntza (pentsatu, sentitu, amestu...)**
 - Zein da zure hizkuntza bezala definituko zenukeen hizkuntza? Zergatik?

- **Euskararekin daukazu harremana ezagutzen**
 - Zein da euskararekin daukazu harreman sentimentala?
 - Sentimendutik, ekintzarako (jarrera) saltoa? (Lotuta doaz edo ez? Zergatik?)
 - Harremana beti berdina izan da? (Erabilerari lotua batez ere)
 - Txikitan, gaztetxotan...
 - Aldaketak + zergatiak
 - Harremana berdina da eremu guztietan?
 - Hezkuntza formalean, familiarean, lagunartean, aisialdian?

- **Gune garrantzitsu bat: Aisialdia**
 - 4.DBHko ikaslea zarela kontutan hartuta, aisialdiaren berri eman
 - Zer egiten duzu institutotik kanpo zauden denboran?
 - Zer, non eta zeinekin?
 - Aisialdiko ekintza bakoitzaren hizkuntza identifikatu

- **Beste gune garrantzitsu bat: Lagunartea**
 - Zein hizkuntza da nagusi zure lagunartean?
 - Zergatik?
 - Espazio guztietan hizkuntza bera da (kalean, lokalean...)?
 - Une guztietan hizkuntza bera da? (talde handia, txikia, pertsona konkretuen eragina...)
 - Zein da ligatzeko hizkuntza, zure ustez?

- **Sare sozialak:**
 - **Waxkapa**
 - Waxkapan zein hizkuntza erabiltzen duzu, zuk?
 - Zein hizkuntza erabiltzen da waxkapeko zure taldeetan?
 - Esaldi luzeak nahiz laburrak hizkuntza berdinean idazten dira? (Zein, zeinetan?)
 - Lagun berberekin hizkuntza bera erabiltzen duzu waxkapean edo kalean?
 - **Twitter**
 - Twitterren zein hizkuntza erabiltzen duzu, zuk?
 - Esaldi luzeak nahiz laburrak hizkuntza berdinean idazten dira? (Zein, zeinetan?)
 - Zein hizkuntza da gehien erabiltzen dena Twitterreko zure inguruan?
 - **Tuenti, facebook...?**
 - Erabiltzen dituzu? Zein hizkuntzatan?

- **Komunikabideak eta internet**
 - Tebistatan zein programa ikusten dituzu? Zein hizkuntzatan?
 - Irratirik entzuten duzu? Zein? Zein hizkuntzatan?
 - Interneten erabiltzen duzu? Zertarako? (Hizkuntza adierazi)

- **Soraluzera iritsi nintzen *Migratzaileen kasuan egiteko galdera:**
 - Etorri aurretik ezagutzen zenuen euskara bazela?
 - Euskara ikasteko gogorik sentitu duzu?
 - Euskara ikastea zaila da?
 - Euskara ikasteak zer eskeini dizu?
 - Euskaraz aritzeko guneak eta uneak daudela uste duzu?
 - Nola bizi dute zure ingurukoek euskarekiko harremana?

- **Euskararekin daukazu harremanean sakontzen**
 - Zeren inguruko konbertsazioak egiten dituzu euskaraz?
 - Zein gairen inguruan moldatzen zara hobeto euskaraz gazteleraz baino?
 - Euskara erabiltzeko oztipoak?
 - Euskara erabiltzeko motibazioak?
 - Zer behar du euskarak, erakargarria izateko? Erabil dezazun?

NORBERARI BEGIRA: etorkizunera begira

- Zein hizkuntzatan irudikatzen duzu zure bizitza aurrera begira? Zergatik?
- Egunen batean ama, izeba, aita... bazara umeak kasketak zein hizkuntzatan egitea gustatuko litzaizuke?
- Zein hizkuntzatan hitz egingo zenioke umeari? Zergatik?
- Umeak zein hizkuntzatan hitz egitea gustatuko litzaizuke?

AMAITUZ...

- Norbere hizkuntza hautua
 - Zuk zein hizkuntzatan aritu hautatu egiten duzu?
 - Hizkuntza batean jardun edo bestean hautatu egiten duzula uste duzu? Zergatik?
 - Gaztelaraz edo euskaraz egiteko, hautu kontziente berdina egin beharra daukazu?
 - Zerk/nork baldintzatzen zaitu hizkuntza batean edo bestean aritzea?

MILA MILA ESKER!

EZTABAIDA TALDEA EREDUA

Euskaltzaleon Topaguneak, Tallers pers la llengua talde kataluniarraren laguntzaz sortutako "Zergatik ez?" tailerreko aurre-tailerrak erabiliko ditut. Aurre tailer hauek honela osatuta daude, pausoz pauso.

1. AURRETAILERRA: Taldea kokatzen (1 ordu)

- Tailerraren helburuak azaldu eta nondik natorren.
- Aurkezpen jolasak
 - Partaide bakoitzak bere burua aurkeztuko du.
 - Eta saioetatik espero duena zer den adieraziko du.
 - Tailerraren inguruko aurreikuspenak hitzez hitz arbelean jasotzen joango gara.
- Aurreikuspenetatik abiatuta tailerraren helburuak azaldu
 - Honakoa argi utzi: Jendartean eta hezkuntzan euskararen erabileraren gaineko kezka dago. Guk ez dugu epaitu nahi gaia kezagarria den edo ez. Ez dugu zuen gaineko baloraziorik egin nahi baina gaia interesatzen zaigu. Eta gaiaren zentroan beti gazteak jartzen dira, haien eskuetan omen dago etorkizuna... Guk gazteoi eman nahi dizuegu protagonismoa, gaia zuen ahotik aztertu nahi dugu.
- Hizkuntzei buruz eta euskarari buruz hitz egingo dugula argi utzi.
- Euskararen datuak ezagutu
 - Zuen ustez zenbatek dakigu euskara EH-an? Eta erabili? (PORRA bat sortu)
 - Ta gazteok? (PORRA egin baita)
 - *Ondoren datu errealekin kontrastatu eta elkarrekin hausnartu (espero zenuten, zergatik...)
 - *Soraluzeko datuak eskaini.
- Urteko orduen banaketa taula landu

Eskola eguna	Opor eguna
LO (8 ordu)	OPORRAK
BESTELAKOAK (8 ordu)	
ESKOLA ORDUAK (8 ordu)	
176 egun	189 egun

- Beraz, 365 egunetik 176 egun dira eskola egunak, eta beraz eskola orduak urteko %15a baino ez dira. Beraz beste une eta momentu ugari ditzutela gozatzeko mahai gainean ipini diegu.
- Bizipen positiboan taula
 - Azken urtean izandako bizipen positiboak identifikatzeko taula osatu dute. (*Eranskinetan taula)
 - Eta bizipen positibo horiek zein hizkuntzatan izan dituzten identifikatzeko eskatu diegu.
 - Gehienak gaztelaraz zituenari euskarazko esperientzia positibo bat pentsatzeko eskatuko diogu eta kontrako bidea gehienak euskaraz zituenari.
 - Horren inguruko hausnarketa egingo da taldean.
- Euskararengandik taldea non kokatzen den identifikatzea
 - 3 aukera eskainiko zaizkie, euskararengandik gertu / nahiko gertu / urrun kokatzen diren.
 - Eta talde gisa, aukeratu beharko dute haien kokapena.

2. AURRETAILERRA: Euskararekiko harremana (1 ordu)

- Euskararengandik non kokatu ziren gogoraraziko diegu.
- 2 galdera hauek egingo dizkiegu:
 - Zergatik erabiltzen duzu euskara? (Erabiltzen duzunean)
 - Zergatik ez duzu erabiltzen euskara? (Erabiltzen ez duzunean)
 - Erantzunak, postit banatan kokatu beharko dituzte, erantzun bakoitzari dagokion kartulinan itsatsiz ondoren.
 - Elkarrekin erantzunak begiratu eta komentatzeko tarte hartuko da, gazteak nahi izanez gero.
- Egoera bakoitzean zein hizkuntza erabiltzen duzue?
 - Taula baten bitartez (*Eranskinetan taula), egoera bakoitzean zein hizkuntza eta zergatik erabiltze duten identifikatzeko eskatuko diegu.
 - Ondoren, taldean komentatzeko aukera emango da, nahi bada.
- Euskararen erabileran eragina daukaten faktoreen azterketa
 - Honako faktoreak aztertuko ditugu, talde txikitan:
 - Input mediatikoa
 - Eskaintza kontsumoa
 - Hizkuntza gaitasuna
 - Haurtzaroko hizkuntza ingurunea
 - Talde eta pertsona erreferenteak
 - Talde txiki bakoitzak faktore bana aztertuko du (*Eranskinetako testuak erabiliz)
 - Ondoren, faktorearen azalpena eta talde txikiko hausnarketak talde handian elkarbanatuko ditugu elkarrekin.
- Biziki eskertuz, agurra.
 - Komentatu nahi duten hori komentatzeko aukera eskainiz beti ere.